

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

**538/2022 Foru Agindua, azaroaren 16koa. Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzuaren Hirigintzako Planeamendu, Kudeaketa eta Diziiplina Atalaren buru lanpostua (kodea: 1090.001) berariazko lehiaketa sistemaren bidez betetzeko deialdiaren ebazpena**

Martxoaren 10eko 147/2022 Foru Aginduaren bidez, Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzuaren Hirigintzako Planeamendu, Kudeaketa eta Diziiplina Atalaren buru lanpostua (kodea: 1090.001) berariazko lehiaketa bidez betetzeko deialdia egin zen. Foru agindu hori 2022ko martxoaren 25ean argitaratu zen ALHAOn (36 zk.).

Merezimendu emaitzak argitaratu ondoren, Balioespen Batzordeak proposatu du lanpostu hori Ivan Gallego Garayalde jaunari esleitzea.

Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren alorreko eskumenak ezarri ziren. Bestalde, ekainaren 1eko 23/2021 Foru Dekretuaren bidez, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailaren egitura organiko eta funtzionala onetsi zen. Bi dekretu horietan ezarritakoarekin bat etorritz.

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Ivan Gallego Garayalde behin betiko atxikitzea Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzuaren Hirigintzako Planeamendu, Kudeaketa eta Diziiplina Atalaren buru (kodea: 1090.001) lanpostura.

Bigarrena. Ezingo dio uko egin esleitutako destinoari eta, lanpostuaz jabetu ondorengo bi urteetan, ezin izango du parte hartu lanpostuak betetzeko deitutako lehiaketetan, nola eta funtzionario horrek ez duen galtzen eskuratutako lanpostuetarako atxikipena, Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legeak 50. artikulua 3. apartatua eta 4. apartatuko a) letran xedatutakoari jarraituz.

Hirugarrena. Jatorrizko lanpostua 2022ko azaroaren 30ean utziko da.

Laugarrena. Esleitutako lanpostuaz jabetzeko eguna 2022ko abenduaren 1a izango da .

Bosgarrena. Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da bi hilabeteko epean, hura ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsua hilabeteko epean, ebazpena hartu duen organo berean. Hori guztia, Administrazioarekiko Auzibideen Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46.1. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan ezartzen duenarekin lotuta.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko azaroaren 16a

*Bigarren diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua*  
**CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR**